

{ analisia } Mikel ZUBIMENDI

Hegoak ebakita, kiwi bat da

Gizakien forma hartuta, borondate eta intentzioaren jabe, animaliak atxilotu eta zigortzea, hegoak moztu edo urkatzea, aspaldikoa da. Eta egungoa, subjektu moral legez, salatu, epaitu eta kartzelatzea.

Animaliei, bartzuetan, gizakiek elkarri ematen dioten mespretxuzko tratatu desatsegin bera eman izan zaie. Atxilotuta, torturatuta, epaituta eta exekutatuta, kreature gaixook egoera arra-roenetan aurkitu daitezke; gizakien forma hartuta, borondate, pentsamendu eta intentzioaren ezaugarrien jabe. Putreak, katagorriak, itsas-zakurrak, beleak, izurdeak, saguzarrak, tximi-

noak... piztia beldurgarri edo espioi izatearen akusaziopean. Iraganen epaiketa penaletan bezala, egun ere, epaiaren zain. Adibideak nonahikoak eta noranahikoak dira. Pelikuletakoak denak.

Adibide beldurgarri bezala, aipa daiteke 1386. urtean Normandiako Falaise hirian «umeak kaleetan jateagatik» txerria plaza publikoan exekutatu zutenekoa. Jendetza batu zen ikuskizunera, luma eta belus hoberenekin jantzita, okasiorako borroari traje berria eskainiz,

eta, exekuzioa betikotzeko, freskoa pintatzeko artista ekarrita. Ia lau mendez egon zen Falaiseko elizaren murreran freskoa, exekuziorako erabili zuten modu basatia erakutsiz: aurreko hankak beroarekin anputatuz, gero urkatua izateko.

Epaiaren zain

Edo lerrootara ekar liteke Suitzan 1474. urtean gertaturikoa, arrautza jartzeagatik oilarra epaitu zutenekoa. Garaian gauza jakina baitzen sorginek eta belagileek beren gaiztakerietan oilarrak jarritako arrautzak erabiltzen zizutela. Eta orduan ohikoa zen, deabruarekin aliatuta egotea egotzita, oilarrari hegoak moztu eta sutan erretzea, publikoki.

Ez, ez ziren kasu isolatuak. Erdi Aroko Europan ohikoak ziren umeak jaten zituzten txerriak bezala, nobleen eskuari kosk egiten zioten txakurrak, ostikada batez pertsona kolpatzen zuen zaldia, edo adarkada batekin erasotzen zuen behia, edo arratoiak, matxinsaltoak, barraskiloak eta bestelako intsektuak epaitzea eta zigortzea. Zergatik? Zer egotzita? Pertsonen, Jainkoaren eta ondasunen aurka egingako krimenengatik.

Bi motatako prozesuak ziren: sekularrak, gizakiak hil edo mutilatu zituzten krea-




1554an, apaiz bezala –katolizismoaren sinbolo– jantzitako katua Londresko Cheapsiden urkatua. Wikipedia

turen aurkakoak; eta ekle-siastikoak, arratoiak edo in-tsektuen kontrakoak berezi-ki, zerealen aurkako delituengatik zigortzen zire-nak. Heriotza zigorra ezarri zezaketen epaiketa hauetara aurkezten zituzten animalia “gaiztoek” euren abokatu propioa izendatu zezaketen.

Errekrutatuak

Denok ematen dizkiegu in-tentzioak animaliei eta beren jokaerei. Katua bihurria da, txakurra ‘mutil ona’, zaldia basa eta harroa... Sarritan, subjektu moralak izango ba-lira bezala hitz egiten dugu haietaz, hau edo bestea egi-tea nahita erabakitzen dute-lakoan. Begietara begiratzen diegunean, begien bestal-dean inteligentzia bat ikus-ten dugu. Baina gizakiek his-toria luze eta bitxia daramate animaliak epaitzen, oilar sa-tanikotik hasi, haurrak jaten dituen txerritik segitu eta uso espioiekin buka.

Egun, kontu hau azaltzen eta berrazaltzen den eremua espioitzarena da. Izan ere, es-pioitzan, hain jarduera giza-tiar eta arriskutsuan, anima-liak errekrutatu dituzte kausaren alde. Ez diete galde-tu, jakina; ez zaie informatu; eta, hala ere, hainbat espe-ziek ikusi dute beren burua gerratan, gatazkatan eta desadostasunetan sartuta. Ustez, gizateriaren kausaren



«Haurrak jaten zituen» txerriari Normandiako Falaisen egindako epaiketaren litografia. Matthew CAVANAUGH | EFE

alde, aurrerabidearen alde, bando bati ala besteari aban-taila eta irabaziak emateko.

Eta teknologiak aurrera egiten duen heinean, badiru-di joera handituko dela. Agian beldur eroak dira, edo agian egia bitxiak, baina ze-rrenda amaigabea da. Badira animaliak gure gerra jolase-tan ez erabiltzeko diotenak. Eta, egiari zor, biolentziazko giza ekintzetan animaliak erabiltzeak muga guztiak lau-sotzen ditu. Beldur izan behar diogu malaria barreia-tzen duen moskitoari, edo kamera bat eramaten duena beldurgarriagoa al da? Eta, katagorriak, ezkurak beha-rrean, pertsonak ehizatzen hasten badira? Itsasoko lehoiek ahoan arrainak baino leherkariak eramaten badi-tuzte? Eta katuak ilajea baino kableak orrazten baditu?

Bitxia dirudien arren, as-paldiko kontua da animaliak espioitzagatik akusatzearena. Munduko inteligentzia agen-tziek milioiak gastatu dituzte agente curioso hauek entre-natzen. Mila urte baino gehiago dauzkaten praktikak dokumentatuta daude. Sines-tezinak dirudite istoriook, baina egia izateko trazu de-nak dauzkate. Drone txikien aurka belatzak baino arma eraginkorragorik ez dagoela esaten da orain, ongi entre-natzen badira, behinik behin.

Katu androidearena

Ezaguna da CIAren "Project Acoustic Kitty" proiektua, 1960ko hamarkadan, milioi-ka dolar gastatuz, bost urtez landu zen katu hibridoaren istorioa. Katu androide hari, albaitari zirujauak garezurra-

ren oinarrian irrati transmi-sorea txertatu zioten, azala-ren azpian antena eta bar-ne-belarriaren kanalean mikrofonoa. Baina azke-nean ideia alboratu zen, ez zuen azterketa gainditu, operazio errealetan ez omen zelako erabilgarria.

Accustic Kitty katuaren-tzat plana zehatza zen: par-ke publikora eraman, libre utzi, eta banku batean eseri-ta zeuden intereseko pertso-nen arteko elkarrizketak grabatu. Eta praktikara era-man zuten, bai; baina katu-txoa noraezean ibili zen par-kean, harik eta taxi batek jo eta bertan zanpatu zuen ar-te. Argitaratu zen proiektua-ren inguruko CIAren txoste-nak adierazten duenez, «katu entrenatuen progra-maren azken azterketak era-kutsi digu gure behar prakti-

ko eta oso espezializatueta-
rako ez zela egokia».

Espioitza lanetarako entre-
natu diren animalien bildu-
metan ageri diren guztien ar-
tean, bada bat, dudarik gabe,
besteen gainetik nabarmen-
tzen dena: usoa. Lehen bi
mundu gerratan oso paper
garrantzitsua jokatu zuen
kreatura txiki eta apal honek,
hainbat misio betetzeko
ideala zela erakutsiz.

Unitate militarren artean
komunikazioak etenda zeu-
denean, mezuak eramaten zi-
tuzten. Etsaiaren lerroen
atzean aise mugitzen ziren.
Hegazti hauei jarritako ka-
meren bitartez argazkiak eta
irudiak hartu daitezke, lu-
rrean dauden soldaduek ezer
susmatu gabe.

Washingtonen kokatua da-
goen Espioitzaren Nazioarte-
ko Museoak informatzen
duenez, «etsaiaren suaren er-
dian bidali ziren ehunka mila
uso mezularietatik %95ek be-
ren misioak egoki bete zituz-
ten». Eta zera ere badio:
«1950eko hamarkadan usoe-
k beren zerbitzu ausartekin ja-
rraitu zuten, beste animalia
guztiak baino ohorezko do-
mina gehiago irabaziz».

Gizakien ergelkeria

Duela gutxi, usoa espioi be-
zala komunikabideetan be-
rragertu da. Hegaztiaren in-
guruan idatzitako txostenen
arabera, zalantzan jartzen da

gizakiona den sentsibitatea
eta kontzientzia ote dituen.
Baina publiko egin den ka-
suan, gizakiak benetan erge-
lak zirela ematen zuen.

Istoriaa iazko maiatzean
hasi zen, usoa Indiako Mum-
bai hiriko portuaren ingur-
uan harrapatu zutenean.
Hanketan bi eraztun zituen,
txip bat ere bazeraman, eta
ustez letra etzanean idatzita-
ko txinerazko idazkera. Poli-
ziarentzat, espioitza kasu ar-
gi bat baino ez zitekeen izan
eta atxilo eraman zuten.

Baina zer diren gauzak! No-
lakoa den mundu txakur-txa-

kur hau! Kaiolan preso sartu-
tako usoaren kontrako sus-
moak funts gabeak ziren. Hi-
ru hilabeteko ikerketaren
ondoren jakin baitzen hegaz-
tiak Taiwanetik ihes egin zue-
la eta itsas zabaleko lehiaketa
bateko parte-hartzailea zela.
Animalien tratu etikoaren al-
deko elkarreak sutan zeuden
berriarekin, «zortzi hilabetez
preso» atxiki zuten usoaren
kontrako susmoak bertan
behera geratu zirelako.

PETA Animalien Tratamen-
du Etikoaren aldeko Pertso-
nak elkarteko Indiako bule-
goak oharra atera zuen:



«Astero animalien larrialdien
inguruan mila dei baino
gehiago jasotzen ditugu, bai-
na hau izan da gure lehen ka-
sua, non ustezko espioia
kaiolatze bidegabe batetik as-
katu behar zen».

Usoa espioi?

Baina bidegabeki preso sar-
tutako usoaren kasuak Txi-
naren espioitza ahaleginei
aurre egiteko Indian dagoen
paranoia noraino iritsi den
adierazten du. Hegaztiak sus-
magarri egin dituzte espioi-
tza txinatarraren lanabes di-
relakoan. Auzokide duten
Pakistanekin iraganean izan
zituzten beste krisi batzuk
gogorarazten dituzte. Aspal-
dikoak baitira inguru haietan
usoen bidez elkar espiatzea-
rekin lotutako kasuak.

Berriki Kaxemiran plata-
noen kutxa batean 150 uso
zeramatzen hiru pertsona
atxilotu dituzte. Eraztun
magnetikoak zituzten hanke-
tan, ageriko arriskua omen
ziren, espioi edo mezulari
aritzeko agente paregabeak.
Haien entrenatzaileengana
buelatzeko ahalmen hain
ikaragarria dute! Pakistanen
aldeko espioiak omen zire-
nez, hariarekin hegoak lotu
zizkieten zigor moduan.

Horrelako lausenguekin
eta arrazoibide hain dorpee-
kin, benetan espioia izan al
daiteke usoa, espioitza zer
den ez badaki ere?

II. Mundu Gerran
etsaiaren suaren erdian
bidali ziren ehunka mila
uso mezularietatik
%95ek misioak egoki
bete zituen.
Wikipedia